

1. SARRERA

Euskal autore klasikoren bat hautatzerakoan Jean Etxepare berehala etorri zitzaidan gogora. Haren testuen lerroetan antzematen zen dotoreziak bere hizkera aztertzea eraman ninduen. Bere idazkera jatorra eta aberatsa oso erakargarria gerta dakioke irakurtzen duen edonori.

Bere istorioetan Etxeparek adierazten duen maila jaso hizkuntzaren gaineko jakintza esplizituk datorkio, urteetan kazetari lanetan aritu izanaren ondorio nabaria. Erakusten dituen indarguneen artean, nabarmen dezakegu bere hiztegi zehatza bezain koloretsua, oso eremu zabalekoa; eta bestetik, darabilen aniztasuna, batez ere oso argiro, adizkietan, era guztietakoak eta modu guztietakoak, trinkoen erabilera arruntarekin batera.

Haatik, Etxepareren hitz-jarioa garbi azaltzen zaigu testu arin eta ulerterrazetan, bere kontagintza irudimentsuaren bidez sortutakoa. Neologismo gutxi batzuk eta zenbait mailegu frantses baliatuta ere, esamolde adierazgarri eta naturalak ditu lanabes nagusi

Izan ere, ezin da sarrera hau bukatu Pierre Lafittek bere gramatikan Etxepareren mintzaira eredu hartu zuela aipatu gabe. Guraso behenafarrengandik Argentinan jaioa, Etxeparek Nafarroa Beherean eta Lapurdin eman zuen bizitza gehiena, baina bere hizkuntzak lapurtera baino ekialderagoko kutsua du, sortaldeko behenafarreraz edota zubereraz soilik erabiltzen diren osagaiz josita. Nafar-lapurtera deritzon euskalki literario klasikoaren oinarriren bat bihurtu zuen Lafittek.

Lan honetan Jean Etxepareren "Beribilez" (1932) liburuaren lehenengo orrialdeetan (6.etik 17.era) agertzen den hizkuntzaren azterketa landuko da.

2. FONETIKA ETA PROZESU MORFO-FONOLOGIKOAK

Testua irakurriaz, ortografiaren bidez hitzen ebakerari buruzko informazioa zeharka lor dezakegu, baina ez dakigu zenbateraino benetan fidagarria den. Dena dela, grafemei erreparatuta hizkeraren zenbait ezaugarri fonetikoak ohartu gaitzke.

Lehenik eta behin, ezaugarri orokorrak aipatzea dago, hau da, testuan zehar bereizgarri gertatzen zaizkigun hatsarre nagusiak (gehienbat batueraren ikuspuntutik).

Esate baterako, autorearen hizkeran txistukariak sabaikaritzeko joera indartsua erakusten dute:

/s̺/, /s̺/ => /s̺/

xuxen (7.1), *xuriño* (8.1), *bixtan* (10.1), *xahar* (11.2), *xoko* (11.2), *ixtudiant* (11.2)

Kontsonante sabaikarien sailean gaudenez, badirudi sudurkari sabaikaria (/ɲ/) berezko duela hizkerak (bereziki *-ño* atzizki txikigarria dela eta), nahiz eta batueran hots hori agertuko litzaigukeen batzuetan ez egon (*lanhoetarik* 'lainoetatik' 6.2, *munhoari* 'muinoari' 8.1, besteak beste). Gogorarazi behar da honetan iparraldeko euskalkiek ez dutela eskuarki /i/-ren ondorengo kontsonanteetan bustidura gauzaten.

ñimiño (10.4), *xuriño* (8.1), *etxeño* (11.7)

Hala eta guztiz ere, euskal hizkuntzalaritzan "bustidura"¹ deitu ohi den sabaikaritze aldaketa fonetikoa beste testuingurutan agertzen zaigu. Hots albokariak /i/-ren eragina jasan dute eta albokari sabaikari bihurtu dira:

pollita (17.3), *lilluraturik* (7.1)

Baita ere, badaukagu herskari baten sabaikaritzearen adibide bat bederen (*ttipia* 'txikia' 10.4), eta txistukari batzuen bustidura eta /i/-ren desagerpena (lehenengoan ez bezala, honetan testuinguruak baldintzatutako aldaketa fonetikoa da)²:

1 **Bustidura ahula:** albokariaren eta sudurkariaren sabaikaritzea (n > ñ; l > ll)

Bustidura indartsua: herskariaren sabaikaritzea (t > tt; d > dd).

Koldo Zuazok "Euskalkiak: euskararen dialektoak" liburuan dioenez ia Lapurdi osoan eta Nafarroa Beherean, sortaldean izan ezik, erabateko bustidura eza dago. Harrigarria da, beraz, Etxepareren hizkeran topatzea.

2 Hau da mendebaldeko euskalkian gertatzen den aldaketa fonetiko berbera.

'bakoitz' > *bakotx* (7.5)

'bereiz' > *berex* (16.7)

'zuhaitz' > **zuhatx* > *zuhatz* (17.3)

Bestetik, Ipar Euskal Herriko hizkeretan hain ohikoa zen legez (egun Zuberoan eta Nafarroa Behereko sortaldean baino ez da mantendu), herskari hasperendunak aurkitzen ditugu testuak (edo behintzat, hala iradokitzen du grafiak):

athera (8.7), *bethetzen* (9.3), *urthe* (8.1), *phagoen* (11.10), *ikher* (11.11), *aithortzeko* (12.2)

Hasperena bera ere ikusgai dago <h> grafema gisa (*hoin* 10.2, *hek* 12.9, *eihera* 7.2), eta suposatu beharko dugu ahoskatzen zela. Zenbaitetan ere, albokari baten ondoren agertzen da:

ilhabetez (8.3), *alhor* (8.4), *ilhuntzen* (8.5), *bulharrak* (9.5)

Bestelako aldaketa fonetiko bitxiak badira.

Sudurkari baten aurrean bokalek atzeratzeko joera dute. Adibideak emate aldera:

'zein' > *zoin* (12.8)

'edozein' > *edozoin* (8.3)

'zenbait' > *zonbait* (8.3)

'non' > *nun* (8.5)

'nonbait' > *nunbait* (11.3)

'hainbeste' > *hoinbertze* (8.6)

Azken honetan ikus dezakegunez, -st- > -rtz- aldaketa fonetikoa ere nahiko arrunt jazotzen da (*bertze* 9.1, *hamabortz* 9.4).

Atal honekin bukatzearren, morfemen mugan gertatzen den aldaketa fonetiko baten berri emango dugu. Aditz laguntzaile edo trinkoaren aurrean ezezko aditzondoa edota 'bait-' menderagailua ezartzean, lehenengo kontsonanteak aldaketak pairatzen ditu:

/eḡ/ + /ḡ/ => /eḡḡ/

etzaizkonez (8.1), *etzen* (12.4), *etziren* (12.9), *etzuten* (13.6)

/bajt/ + /d/ => /bajt/

baitezakegu (11.11)

/bajt/ + /g/ => /bajk/

baikinion (14.8)

3. ANALISI MORFO-SINTAKTIKOA

3.1. Izena

Izenak ondoko kasu hauetan aurki ditzakegu testuan:

Absolutiboa:

Mugagabeen ez du markarik (*begi* 6.3).

Singularrean, batueraz bezala, beti -a gehitzen zaio izenari (*gogoa* 6.3).

Pluralean, batueraz bezala, beti -ak gehitzen zaio izenari (*bulharrak* 9.5).

Funtzioari dagokionez, espero zenez, aditz iragangaitzeko perpausaren subjektua edo perpaus baten osagarri zuzena izan daiteke. Ez dago, beraz, berezitasunik honetan.

Ergatiboa:

Mugagabeen, batueraz bezala, -k gehitzen zaio izenari.

Singularrean, batueraz bezala, beti -ak gehitzen zaio izenari (*aire onak* 6.3).

Pluralean, batueraz bezala baina ekialdeko euskalkietan soilik ohikoa zen legez³, beti -ek gehitzen zaio izenari (*gure otoek* 7.3).

Funtzioari dagokionez, espero zenez, aditz iragankorreko perpausaren subjektua izan daiteke. Ez dago, beraz, berezitasunik honetan.

3 Mendebaldeko eta erdialdeko euskalkietan, eta Nafarroa Garaiko mendebaldean, singularrean zein pluralean -ak zuen marka ergatibo kasuak.

Datiboa:

Mugagabeen ez dugu testu honetan aurkitu.

Singularrean -ari gehitzen zaio izenari: *bideari* (6.3), *munhoari* (8.1).

Pluralean, batueraz ez bezala, -er gehitzen zaio izenari: *atzeritarrer* (8.3), *arrotzer* (8.3), *moroer* (12.5)⁴.

Funtzioari dagokionez, zehar osagarria izateaz gain, errejimen bereziko esapide askotan erabiltzen du: *zelaiari gibelaz* (9.3), *mendi-lerro handiari buruz* (8.3), *patar eztiari beheiti* (15.3), *mazelari gora* (16.9), *bideari hurbil* (10.1).

Beti ez du aditzarekiko komuntadurarik eragiten:

adio erraiten dugu behingotz Orreagako herri ñimiñoari (13.8)

Genitiboa:

Mugagabeen, batueraz bezala, -ren gehitzen zaio izenari (*ororen* 6.4).

Singularrean, batueraz bezala, -aren gehitzen zaio izenari (*bidearen* 6.2).

Pluralean, batueraz bezala, -en gehitzen zaio izenari (*erroen* 6.2).

Funtzioari dagokionez, izenlaguna izateaz gain, aditz jokatugabeko osagarri zuzena ere izan daiteke (TOGa, sintaxia atalean zehaztuko denez) eta zenbait errejimen berezitako kasua: *jakinaren oldez* (7.1).

Instrumentala:

Mugagabeen, batueraz bezala, -(e)z gehitzen zaio izenari (*astezken-goiz batez* 6.1).

Singularrean, batueraz bezala, -az gehitzen zaio izenari (*gauaz* 6.2).

Pluralean, batueraz bezala, -ez gehitzen zaio izenari (*omen-handikoez* 6.1).

Funtzioari dagokionez, tresna adierazteaz gain (aditzaren adizlaguna), aditz batzuen errejima bada (*betherik* 6.1) eta denborazko balioa ere badu (*gauaz* 6.2)

Errejimen bereziak: *mendiez haraindiko* (6.2), *etsimenduz guti* (8.5).

Inesiboa:

Formari dagokionez ez dago berezitasunik hemen, batueraren ikuspuntutik.

Hori bai, bizidunen inesiboa (-gan) 'baitan' postposizioaren bidez gauzatzen da testuan: *geure baitan* (6.6), *bere baitan* (10.1)⁵.

Hala ere, funtzioari dagokionez, errejimen berezi batzuk aipagarriak dira: *erraietan barna* (7.2),

4 Datibo pluralaren banaketa dialektalari dagokionez, Mendebaldean -ai dugu, Lapurdin eta Nafarroan -ei eta Nafarroa Beherean eta Zuberoa -er. Beraz, Etxeparerena ekialde muturreko hizkeretara lerratzen da.

5 Betiere izenordain indartuak erabiltzen ditu.

Alduden barna (7.3), Baigorri harat (7.3).

Alatiboa:

Orokorrean batueraz bezalako -tara/-(e)ra/-etara bada ere, -rat (sg.) iparraldeko aldaera ere agertu zaigu: *alderat (7.1), gibelerat (6.1).*

Batzuetan errejimen bereziko esapideetan: *Garazirat buruz (7.1).*

Bizidunen alatiboa ere behin topatu dugu, genitiboaren gainean eratuta: *amatxoren ganat (7.6).*

Muga alatiboa⁶ ere lekukotzen da: *errekatzerraino (8.4).*

Funtzioari dagokionez, aipatutako errejimenez landa, nora galderari erantzuten dion adizlaguna da.

Ablatiboa:

Singularrean batueraz bezala -tik gehitzen zaio izenari, baina mugagabeen eta pluralean Iparraldean ohikoa den legez -(e)tarik atzizkiaz baliatzen da: *eskuinetarik (10.4), aldetarik (15.2), lanhoetarik (6.2).*

Funtzioari dagokionez, nondik galderari erantzuten dion adizlaguna da, eta zenbaitetan ere errejimen bereziko kasua: *lanhoetarik garbi (6.2).*

Leku-genitiboa:

Formari dagokionez ez dago berezitasunik (-tako/-ko/-etako).

Funtzioari dagokionez, lekua adierazten duen izenlaguna izateaz gain (*gibeleko mala 6.4*), arloa edo eremua ere seinalatzen du (*menuzergoko jeinua 8.1*), eta banatzailea ere izan daiteke (*70 kilometra irets bailitzazkete orenko 17.1*).

Soziatiboa:

Bere formaz batueraz bezalakoa da eskuarki, baina leku-genitiboak lagunduz gero, Iparraldeko forma egokitzen zaio: *bospasei etxeñorekilako (mgg. 8.3), zilar-estalgiarekilako (sg. 13.1).*

Destinatiboa:

Testuan pluralean aurkitu dugu (*otoentzat 7.3*), eta genitiboaren gainean eratuta. Mendebaldeko euskalkian destinatiborako hedatu den -tzako atzizkia ez da hemen islatzen, jakina.

Prolatiboa:

Formari dagokionez, -tzat gehitzen zaio izenari (*alhortzat 8.4*) eta ez -tako beste euskalkietan

⁶ Aditz jokatuekin ere agertzen da '(i)no' formapean: *dirauno (17.5), gireno (9.3)*

bezala.

Bere funtzioa osagarri predikatiboa izatea da.

Partitiboa:

Formari dagokionez, batueraz bezala, -(r)ik dugu atzizkia, baina behin ere *zelaiik* (10.6) agertzen zaigu, eta ez espero genuen 'zelairik'.

Funtzioari dagokionez, gehienetan ezezko perpausetako osagarri zuzena den arren (*epailerik* 15.5), baiezko batean ere topatu dugu (*bertzerik* 13.2). Horretaz aparte, esamolde superlatiboetan ere aurkitzen dugu (*landarerik xumeena* 6.2) eta errejimen berezikoetan: *ephe laburrik barne* (7.3), *kezkarik deus* (6.3).

Noski, aditz jokatugabeetan ere partizipioa markatzen du, gerora ikusiko dugunez.

3.2. Erakusleak, pertsona izenordainak eta bestelakoak

Erakusleak:

1. gradukoak

Abs. sg. *hau* (11.2), pl. *hok* (17.4).

Erg. sg. *hunek* (9.1), pluralean ez da testuan agertu.

Gen. sg. *hunen* (9.8), pluralean ez da testuan agertu.

Ines. sg. *huntan* (12.3), pl. *hotan* (12.4).

Abl. sg. *huntarik* (9.8), pluralean ez da testuan agertu.

Sail honetan bereziki interesgarria gertatzen zaizkigunak pluraleko formak dira *ho-* (*hau-) erroaren gainean eratuta. Singularrean forma obliquak *hun-* (*hon-) errotik zuzen abiatzen dira, lehenago aipatutako bokal-atzeratze fonetiko hori dela eta. Inesiboko eta ablatiboko formetan sinkopea gauzatu da (hunetan > huntan). Gainera, ablatibo zaharra darabil, izenen pluraleko formak bezala (-rik eta ez -tik).

2. gradukoak

Batueraren ikuspuntutik sail honetan ez dugu berezitasun askorik (*hori, horiek, horrek...*), baldin ez bada kasu lokatiboetan gauzatzen den sinkopea (1. gradukoetan bezala): ines. sg. *hortako* (12.9).

3. gradukoak

Abs. sg. *hura* (13.6), pl. *hek* (16.8).

Erg. sg. *harek* (9.3), pl. *hek* (12.9).

Dat. pl. *heier* (16.10).

Gen. sg. *haren* (7.5), pl. *heien* (7.6).

[Ines. sg. *hartan* (25.8), pl. *hetan* (25.2).]⁷

1. graduan ikusi dugun antzera, honetan ere pluraleko formak bereizgarri ditugu. He- tankerako erro batean erata daude gehienak, nahiz eta datiboan eta genitiboan -i- epentetiko bat sortu. Atzizkien aldetik ez dira bereziak izen morfologiarekin erkatuz gero. Aipatu behar da batueraren ikuspuntutik ergatibo singularra desberdina dela, -e- epentetiko bat txertatzen zaiola kasu markaren aurrean.

Pertsona izenordainak:

Esku artean darabilgun testu laburrean ez ditugu pertsona izenordain guztiak topatu. Nolanahi ere, aurkitu ditugun apurrek badute zer esana.

1. pertsona

Singularrean topatzen dugun bakarra *ene* (9.7) genitibo zaharra da, benetan adierazgarria.

Pluralean, aldiz, forma asko dira, baina gehienak ez oso interesgarriak (*guk, gutaz, gure, gurezat*), forma indartuak izan ezik:

Soziatiboa *guhaurekin* (6.4)⁸

Genitiboa *geure* (6.6)

2. pertsona

Oso forma gutxiren lekukotasuna eman dezakegu, eta ikusten dugunez izen morfologiari jarraitzen diote:

Genitibo plurala *zuen* (16.10)

Ablatibo plurala *zuetarik* (12.4)

3. pertsona

Euskaraz berez 3. pertsonako izenordainik ez dagoenez (erakusleak dira eta), azaldu dezagun hemen genitiboko forma indartuen berezitasuna. Gehienetan Linschman-Aresti legea betetzen duela⁹,

⁷ Inesiboko formak ez dira gure lagin mugatuan agertu, baina, interesgarriak diren heinean, merezi du erakustea.

⁸ Beste euskalkietan erabiltzen diren formak horretatik eratorriak dira: 'geu', 'gerori', etab.

⁹ Banaketa osagarrian 3. graduko erakusle arruntaren genitiboarekin: *haren* (7.5).

genitibo singularrean *bere* (13.4) aurkitzen dugu, eta pluralean, berriz, *beren* (13.2). Bigarren forma hau nahiko berria da Hego Euskal Herrian.

Bestelakoak:

Hizkeraren adibide onak diren bakan batzuk zerrendatze aldera:

hanitzek 'askok' (7.1)

zoin 'zein' (2.13)

hanbat 'hainbat' (7.4)

batzu 'batzuk' (9.5)

elgar 'elkar' (8.4)

nihun 'inon' (12.1), *nehork* 'inork' (13.3), *nihoi*z 'inoiz' (8.6)

artio 'arte' (16.5)

3.3. Aditza

3.3.1. Aditz jokatu gabea

Aditzizena (eta forma burutu gabea)

Testu honen hizkeran aditzizena eratzeko hiru era desberdinez baliatzen da. Kontsonante urkariz (albokariz edo dardarkariz) edo bokalez amaitzen diren aditzoinei '-tze' gehitzen zaie; sudurkariz edo txistukariz amaitzen diren aditzoiei, berriz, '-te' gehitzen zaie; azkenengo multzo honetan sudurkariz amaitzen diren batzuei Ipar Euskal Herriko bereizgarri den '-ite' atzizkia gehitzen zaie.

Aditzizenari zenbait atzizki atxikitzen zaie; eskuarki inesiboa erabilita, ezagutzen dugun forma burutu gabea osatzen da (-tzen/-ten/-iten). Baina testuan bestelako atzizkiak ere erabiltzen dira, besteak beste, leku-genitiboa (-tze ko/-te ko/-ite ko)¹⁰ helburua adierazteko, edo absolutiboari dagokion artikulua mugatua (-tze a/-te a/-ite a) perpaus bateko subjektu iragangaitza edo osagarri zuzena betetzeko.

Hona hemen testuan agertzen diren formen sailkapen txiki bat:

-tze-: *argitzen* (6.2), *bizkortzen* (6.3), *idekitzen* (6.5), *ospetzen* (6.7), *galtzen* (7.1), *hertsitzen*¹¹ (8.4), *sartze ko* (7.3), *trikatze a* (8.3).

-te-: *uzten* (9.4), *jate ko a* (6.4), *jakite kotz* (13.3).

¹⁰ Honen aldaera bat testuan '-te kotz' da: *jakite kotz* (13.3)

¹¹ Honetan espero genuen 'hersten' ez da agertu. Badirudi aditzoia 'herts' dela, eta ez 'herts'.

-ite-: *joite*¹² (6.3), *erraiten* (7.2), *iragaiten* (7.3), *igaiten* (7.6), *emaiten* (10.1), *joaiten* (7.3), *eremaitenkoak* (15.5).

Forma burutua

Bere forma euskara batuaren ohikoa dela (-i, -n, -tu...), hiru erabilera nagusi ditu testua. Batetik, aditz laguntzaile batek lagunduta, ekintzaren aspektu burutua adierazten du aditz sintagma perifrastikoetan. Horietan, burututasuna nabarmentzeko, artikulu mugatua ere erabil daiteke (*ibilia nintzelakotz* 6.2). Bestetik, forma burutuari instrumentala atxikita (mugagabea zein singularrean), adizlagun bihurtzen da, nolabaiteko modua (nola) edo tresna (zeren bidez) adierazten duena (*aitzinatuz* 17.5, *perekatuz* 7.5, *ibiliaz* 15.6). Eta azkenik, soilik ekialdeko hizkeretan (Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian) gertatzen den egitura baten testigantza jasotzen dugu; aditzaren forma burutuak, bere kabuz erabilia, izen baten aurrean izenlagunaren papera betetzen du (*egin zubi zahar* 8.1, *airatu langarra* 6.2), beste euskalkietako "partizipio+leku-genitiboa" egitura ordezkatuz.

Partizipioa

Orokorrean, partitiboa erantsita daraman formari partizipioa deitzen diogu. Bokalez amaitutako aditzek '-rik' (*betherik* 6.1, *lilluraturik* 7.1) hartzen dute eta besteek '-ik' (*jakinik* 7.2, *iraganik* 10.7). Bere erabilera osagarri predikatiboa edo atributoa izatea da. Bestalde, eraikuntza absolutua (denborazko balioarekin) deritzona ere partizipioaren bidez egiten da. Testu honetan '-ta' atzizkia atxikitako formek ere funtzio hau betetzen dute (*jautsi-ta* 6.7, *askatu-ta* 15.6).

Geroaldiko forma

Testuan jasotzen ditugun formek '-ko' atzizkia dute bokalez amaitzen diren aditzetan (*ibiliko* 9.2, *erakutsiko* 9.3, *helduko* 11.8, *geldituko* 12.9), eta '-en' sudurkariz bukatzen direnetan (*izanen* 7.3, *joanen* 13.6). Hortaz, isoglosei dagokienez tarteko eremuan kokatzen da hizkera hau, non mendebalderago aditz guztiek '-ko' hartzen duten, eta ekialderago (Zuberoan) aditz guztiek '-(r)en' hartzen duten.

Aditzoina

Mendebaldean ez bezala, Etxepareren mintzairan beti erabiltzen da aditzoina subjuntiboko eta

¹² Hau irregularra da, aditzoina bokalez amaitzen delako, eta ez sudurkariz besteenak bezala.

ahalerako aditz laguntzaileekin. Adibideak:

sinets dezala (9.1), *ez dezakegu uka* (17.5), *ez dezakegu berex* (16.7), *koka zitezin* (12.5)

3.3.2. Aditz jokatua (I): Laguntzaileak

Lehenengoz, esan behar da iraganean ekialdeko formak hobesten direla, hau da, '-en' bukatzen direnak¹³: *ginen* (6.1), *ziren* (9.2), *zuen* (6.2). Era berean, adizkiei menderagailuak gehitzean, gehienetan -e- epentetiko bat txertatzen zaie¹⁴ (trinkoetan ez bezala, ikus beherago): *duena* (6.7), *nintzelakotz* (6.2), *ditaken* (9.4).

Adizki iragankorretan -i- dugu lehenengo silaban, euskara batuaren -e-ren orde. Adibidez: *ginuen* (6.2)¹⁵, *bagineraman* (6.4), *baikinion* (14.8), *zinutela* (12.5)¹⁶. Halaber, euskara batuan adizkietan -ai- diptongoa aurkitzen dugun guztietan, hizkera honetan -i- topatzen dugu. Adibidez: *gitu* (12.1), *gituzte* (6.7), *ditaken* (9.4), *bakitazke* (12.1)¹⁷.

NOR saileko adizki iragangaitzetan (izan aditza, berez), orainaldian ere -i- topatzen dugu, Ipar Euskal Herrian orokorra den legez¹⁸: *gira* (13.1), *zira* (8.5).

NOR-NORK saileko adizki iragankorrak (edun aditza, berez) '-u-' errokoak ditugu (*dugu* 9.3), ez '-o-' edo '-e-' beste euskalkietan bezala. Hizkera kokatzeko oso egokia, beraz.

NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sailetan 1. pertsonarako topatzen ditugun NORI-ko morfemak herskari ahoskabeak ('-ta', '-ku') dituzte, eta ez ahostuna batueraz bezala: *dautet* (7.6), *dauku* (10.5), *zaiku* (11.2). Zubereraz antzera gertatzen da. Hala ere, NOR-eko '-zki-' pluralgilearen ondoren agertzen direnean, dirudienez, ahostunak dira berriro: *zitzaizkigun* (6.2), *dauzkigunentz* (6.3); baina ez -z- pluralgilearen ondoren: *dauzkute* (11.9). 3. pertsonako NORI-ko morfema, berriz, '-ko' da zenbait adizkietan eta NOR-eko pluralgilearen ondoren (*zaizko* 8.1, *daizko* 11.4); besteetan '-

13 Mendebaldeko euskalkietan 'ginan', 'ziran', 'zuan'.

14 Mendebaldeko euskalkietan sarritan '-ana' eta '-ala' egiten da elkarketa hau.

15 Hau berez aditz trinko bat da adibidean.

16 Batueraz 'genuen', 'bageneraman', 'baikenion', 'zenutela'.

17 Batueraz 'gaitu', 'gaituzte', 'daitekeen', 'baikaitezke'.

18 Mendebaldean -a- ('gara', 'zara'), Erdialdean -e- ('gera', 'zera'), Nafarroa Garaian berriro -a-.

o' da (*zaion* 8.1, *zitzaiolarik* 6.2), batueraz bezala.

Edonola ere, ERADUN aditzetik eratorritako NOR-NORI-NORK saila dugu: *daukute* (13.2), *dautet* (7.6), *daizko* (11.4). NORI 3. pertsona denean batzutan -i- errokoak ditugu: *ziotelarik* (7.3), *baikinion* (14.8). NOR-NORI sailean, ordean, 'zai-' dugu erroa erdialdeko euskarari bezala (eta batueraz) eta lehenaldian 'zitzai-', erdialdeko berrikuntza bat.

Aipa genezake ere -te pluralgilea oso hedatuta dagoela sistema osoan, analogiagatik, nahiz eta erlatiboki berria izan, ia ez dago '-e' pluralgilearen aztarnik¹⁹. Adibidez:

ninduten (6.2), *zituzten* (6.5), *gituzte* (6.7), *dute* (7.1), *ziotelarik* (7.3), *zaizkote* (15.1)

Bukatzeko, harrigarria da indikatiboko ke-dun formak hain sarritan erabiltzea (*duke* 10.1, *dukete* 13.7), balio hipotetiko batekin, agiantasuna markatzen duela.

Honaxe topatutako adizkien lagin baten sailkapena.

Adizki iragangaitzak indikatiboan (IZAN):

NOR

Orainaldia: *gira*, *zira*

Lehenaldia: *nintzelakotz*, *ginen*, *zineten*, *ziren*

Baldintzazkoa baldintza: *balitza*

NOR-NORI

Orainaldia: *baitzait*, *zaizkit*, *zaion*, *zaizko*, *zaiku*, *zaizkigu*, *zaizu*, *zaie*, *zaizkote*, *gitzaizko*

Lehenaldia: *zitzaiolarik*, *zitzazkigu*, *zitzazkon*

Baldintzazkoa baldintza: *balitzazko*

Adizki iragankorrek indikatiboan (EDUN):

NOR-NORK

Orainaldia: *gitu*, *dute*, *dugu*, *zitu*, *gituzte*, *duena*, *dituzte*, *dutalakotz* (10.2)

Lehenaldia: *ninduten*, *ginuen*, *zuen*, *zituzten*, *zinutela*

Hipotetikoa: *duke*, *dukete*

¹⁹ Bizkaieraz eta zubereraz hobekien mantenduta.

Baldintzazkoa baldintza: *balituzte, baginte*

Baldintzazkoa ondorioa: *baikinuke*

NOR-NORI-NORK

Orainaldia: *dauzkigunentz, daute²⁰, dauku, daukute, dauzkute, daizko*

Lehenaldia: *ziotelarik, baikinion*

Baldintzazkoa ondorioa: *lioketela*

Adizki iragangaitzak subjuntiboan eta ahaleran (EDIN):

NOR

Orainaldia: *ditaken*

Lehenaldia: *zitezin*

Ahalera orainaldia: *baikitazke*

Adizki iragankorrek subjuntiboan eta ahaleran (EZAN²¹):

NOR-NORK

Orainaldia: *dezakegu, dezadan, dezala, ditzazkezu²²*

Lehenaldia: *zezan*

3.3.3. Aditz jokatua (II): Trinkoak

Trinkoetan erakusten den aniztasuna laudagarria da.

Ezaugarri komunen artean, aipagarria da '-(e)n' (lehenaldiko '-(e)n' ere) eta '-(e)la' menderagailuekin elkartzean emaitza desberdinak ditugula adizki adizki, baina askotan, batueraz ez bezala, -e- epentetiko hori ez dugu aurkitzen ('-a' edo hutsa baizik), adibidez: *zabilan* (14.7), *dakarran* (16.11), *dagona* (9.1), *zagon* (6.2), *nagola* (16.10), *datxikola* (17.4).

Orainaldian bezala, beste aldietan ere -a- morfema tematikoa dago aditzerroaren aurrean. Adibidez: *nakike* (6.2), *zagon* (6.2), *zabilan* (14.7).

Aditz laguntzaileetan ikusi dugun moduan, adizki iragankorretan batueraz -e- dugunean -i-

20 Haplologiaz sortutako adizkia, jatorriz 'dautate'.

21 Mendebaldeko euskalkian EGIN aditzaren erroa erabiltzen da sail honetarako.

22 NOR-eko pluralgile pleonastikoa -it- eta -z-.

daukagu hemen: *gineraman* (6.4).

Nabarmendu beharrekoa nahitaez, -zi pluralgile berriaren sorrera. Hemen joan aditzarekin baino ez zaigu agertu: *bagoazi* (6.3).

Adizki trinkoak izan arren, zenbaitetan NORI-ko morfema ere txertatu die Etxeparek, eta honako marka hauen lekukotasuna dugu: 1. pertsonako beti '-ta' (*dabilzkitalarik* 14.5), 3. pertsonakoa batzutan '-o' (*deritzaion* 7.2, *darraio* 11.6, *darraizkio* 15.7, *badoazkio* 8.1), besteetan '-ko' (*doakonari* 10.1, *datxikola* 17.4).

Honaxe topatutako adizki trinko batzuk, aditzaren arabera sailkatuta.

JAKIN: *nakike, dakigun, daki, badakiguia*²³, *badakikela*

EGON: *dagona, zagon, nagola, ginaudena*²⁴, *bagaude, badagote*²⁵

JOAN: *bagoazi, baikinoazin, goazina, ginoazke, badoa*²⁶, *badoazkio, doakonari*

ERAMAN²⁷: *bagineraman, geramatza, geramatzate*

IRITZI: *deritzaion*

ESAN²⁸: *diote*

ERABILI²⁹: *derabilela, derabiltzagularik*

EDUKI/UKAN: *daukate, dauzka*

JARRAI(KI): *darraio, badarraizkio*

IBILI: *dabilzkitalarik, zabilan*

EKARRI: *dakarte, dakarran*

ETZAN: *datza*

IRAUN: *dirauno*

ATXIKI: *datxikola*

23 Forma bitxia benetan, -i- epentetiko horrekin, behe-nafarrera zaharreraren antzera, prozesu morfofonologiko bat dela medio (-u+-a > -uia).

24 Batueraz 'geundena'

25 Egon aditzean, hirugarren pertsona pluralean -te pluralgilea aurkitzea berezia da (batueraz 'daude', bizkaieraz 'dagoz'). Ez da erabat koherentea, zeren eta 'gaude' ere erabiltzen duen, eta ez *gagote (bizkaieraz 'gagoz').

26 Batueraz bezala, baina ez bizkaieraz bezala 'doia', edota gipuzkeraz bezala 'dijoa'.

27 Ohar gaitzen morfema tematikoa -e- dela, eta ez -a-, batueraz bezala ('garamatza').

28 Ez dago sudurkariaren arrastorik, Mendebaldean 'dinote', 'diñote'.

29 Ohar gaitzen morfema tematikoa -e- dela, eta ez -a-, batueraz bezala ('darabil').

4. SINTAXIA

Alde batetik, Etxeparek darabilen hizkeran aditz laguntzailearen kokapena aditz jokatugabearen aurrean edo atzean izan daiteke. Balirudike aditz jokatua (laguntzailea nahiz trinkoa) betiere galdegaiaren ondoren kokatu behar dela. Ezaugarri sintaktiko horren adibide ugari ditugu:

gira motz-zeiharkatu (7.1), *hemen dute porroskatzen* (7.2), *ditzazkezu ikus* (10.3), *zautaten erakutsi* (17.10)

Beste fenomeno sintaktiko interesgarri bat TOGa da. Testuan badira genitiboren bidez markatutako osagarri zuzenak aditz jokatugabeko perpausetan:

porzelenaren egiteko (7.2), *osagarriaren ontzen* (8.3), *aberatsen ikusteko* (13.1), *hegi murrizaren leuntzeko* (14.5), *zuen bizi xumearen atheratzeko* (16.9).

Bestalde, perpaus mailan gauzatzen diren zenbait atzizki berezi badaude testu osoan zehar ikusgai. Haien artean nabarmentzekoak dira ondoko hauek.

othe galde-partikula:

ez othe da berantegi (17.6), *heien gatik othe* (9.1)

-ene(n)tz zehar galderetan:

ez othe dauzkigunentz (6.3), *gaude ez othe direnetz* (16.2)

-laktz kausazko perpausetan:

luzesko badoalakotz erreka (8.5), *aditzen dutalakotz* (10.2)

-larik denborazko perpausetan:

bihotza pilpil bagoazilarik (11.8), *malda heier so nagolarik* (16.10)

5. LEXIKOA

Ettxeparek darabilen lexikoa argi eta garbi Ipar Euskal Herriko hiztegiaren adierazgarri da. Topatzen ditugun adibide esanguratsuenetarikoak hauek izan daitezke:

agorrila (6.1), *gibelerat* (11.11), *aitzinean* (17.2), *sapa* (6.2), *ideki* (6.5), *erran* (11.6), *besta* (7.3), *ahalgetu* (9.3), *galdegin* (11.2), *idor* (12.2), *oren* (17.1), *zalu* (8.1)

Hala ere, batik bat ekialdeko euskalkietan (sortaldeko behenafarreran, zubereran, iparrekialdeko nafarreretan...) agertzen diren hainbat hitz ere baliatzen ditu autoreak. Hala nola:

ohoin (12.9), *jin* (14.4), *zendako* (9.1), *orhoit* (6.3)

Horien artean, arkaismotzat jo genitzake batzuk ere sar daitezke:

eihera (7.2), *munhoa* (17.2)

Bestalde, Iparraldeko beste zenbait osagai lexikoren desberdintasuna berezko aldaera fonetikoan datza. Adibidez:

lauzpabortz (6.2), *zoin* (6.2), *beharri* (6.3), *berrogoi* (7.2), *bertzela* (9.7), *balin* (9.2), *iduri* (10.1)

Horretaz fonetika sailean dagoeneko aritu garenez, ez dugu gehiagorik esango.

Azkenik, aipagarria da neologismoen kopuru txikia (*urustasuna* 'alaitasuna' 6.6, *eiken* 'desberdina' 10.6) eta frantsesetiko maileguen agerpena ("m cuisinier" > *menuzergo* 'arotzeria, zurgintza' 8.1, "auto" > *otoa* 'autoa' 9.2).